# ttipi-ttapa

1995eko maiatzak 18 • 158. zenbakia



Erreportaia

**Gure eskualdean, zein da alderdi bakoitzaren perfila?**

# LARUNBATEAN AGERTUKO TXAPELA NORENTZAT DEN

Joxemanuel IRIGOIEN

1995eko maiatzaren 28a

HAUTESKUNDEAK

# NAFARROAKO PARLAMENTURAKO









## *Zure botoak balio du*





*Orain zuk Nafarroaren hurrengo lau urteetako geroa erabakitzen ahal duzu. Bozkatuz har ezazu parte gure komunitatearen aurrerapenean.*



difusión Publicidad

Nafarroako Gobernua




# 1991ko HAUTESKUNDE - EMAITZEN ANALISIA

# GURE ESKUALDEAN, ZEIN DA ALDERDI BAKOITZAREN PERFILA?

***Ba ote dago harreman garbirik alderdi politiko bakoitzak herriz herri lortu zituen emaitzak eta herri hauek dituzten ezaugarri ekonomiko eta sozialen artean?***

***Hau da, toki batean botoak duen orientazioak, zenbaterainoko zerikusia du herri horretan ematen diren zenbait ezaugarri zehatzekin; adibidez, euskararen ezagutza eta erabilerarekin, adin-estrukturekin, botoemailearen egoera ekonomikoarekin, sorlekuarekin, kultura mailarekin?***

Ezaugarri horien artean harremanik ba ote dagoen jakiteko eta guzi horrek alderdi politiko bakoitzaren botoetan nola eragiten duen ezagutzeko, datu desberdinak uztartu eta aztertu ditugu. Batetik, 1991n Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan alderdi politiko bakoitzak gure eskualdeko herrietan eskuratu zituen portzentaiak, eta bertzetik, Nafarroako Gobernuak argitaratutako erroldak herri bakoitzendako ematen dituen datuak; errate baterako, sektore produktibo bakoitzaren datuak, jornala eskuratzen dutenen kopuruak, populazioaren adin-estruktura, populazioaren sorlekua, ikasketa maila, euskal hiztunen kopurua eta etxean euskaraz egiten dutenena, beti ere, Nafarroako Gobernuko datuen arabera.

TESTUA:
*FERNANDO MIKELARENA*

# DATUAK HERRIZ HERRI ETA ESKUALDEKA, PORTZENTAIETAN EMANAK

| Eskualdea | Herria | UPN | EA | HB | PSOE | PNV | Euskaldunak | Etxean euskaraz | 65 urtetik gorakoak | Bertze probintzietan sortuak | Herrian sortuak | Nekazaritza | Industria | Zerbitzuak | Jornalpekoak | Ikasketarik gabekoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BAZTANALDEA | BAZTAN | 40,17 | 26,49 | 12,96 | 12,33 | 0,55 | 90,80 | 51,67 | 20,43 | 9,64 | 69,88 | 29,32 | 30,58 | 38,53 | 60,61 | 66,73 |
| | URDAZUBI | 45,54 | 16,34 | 8,42 | 21,29 | 0,00 | 92,75 | 45,83 | 20,92 | 16,56 | 47,49 | 40,44 | 9,84 | 49,18 | 38,80 | 81,42 |
| | ZUGARRAM. | 33,05 | 7,63 | 19,49 | 20,34 | 10,17 | 98,87 | 65,41 | 14,61 | 11,24 | 51,31 | 54,62 | 17,65 | 27,73 | 34,45 | 87,80 |
| BORTZIRIAK | ARANTZA | 4,03 | 23,26 | 37,00 | 1,83 | 31,50 | 100,00 | 98,75 | 17,53 | 1,78 | 94,38 | 20,46 | 48,65 | 30,89 | 79,54 | 80,95 |
| | BERA | 15,96 | 27,61 | 22,97 | 20,10 | 2,48 | 82,40 | 45,42 | 12,94 | 21,67 | 56,78 | 8,95 | 46,54 | 44,51 | 70,79 | 60,56 |
| | ETXALAR | 17,59 | 31,85 | 29,62 | 12,25 | 3,34 | 95,64 | 72,97 | 20,38 | 12,91 | 77,01 | 19,44 | 46,60 | 33,95 | 56,17 | 62,77 |
| | IGANTZI | 16,29 | 20,14 | 21,04 | 21,04 | 13,80 | 96,12 | 28,75 | 18,65 | 6,56 | 78,76 | 19,13 | 44,81 | 36,07 | 72,13 | 63,26 |
| | LESAKA | 11,15 | 18,53 | 23,48 | 8,74 | 32,96 | 90,57 | 57,78 | 14,25 | 17,01 | 66,32 | 5,69 | 57,11 | 36,43 | 75,27 | 59,74 |
| LEITZALDEA | ARANO | 7,69 | 33,33 | 30,77 | 5,13 | 17,95 | 99,33 | 96,64 | 16,00 | 30,00 | 61,33 | 22,06 | 48,53 | 29,41 | 67,65 | 66,93 |
| | ARESO | 25,00 | 16,38 | 32,33 | 13,79 | 3,02 | 99,20 | 83,13 | 21,48 | 18,75 | 63,28 | 15,05 | 66,67 | 18,28 | 78,49 | 56,28 |
| | GOIZUETA | 3,86 | 19,81 | 65,54 | 2,42 | 0,64 | 89,47 | 92,29 | 15,75 | 14,40 | 77,20 | 10,88 | 59,71 | 29,41 | 77,35 | 70,45 |
| | LEITZA | 24,04 | 27,70 | 31,59 | 9,58 | 0,64 | 94,93 | 84,95 | 9,19 | 28,63 | 34,49 | 6,57 | 61,90 | 30,64 | 78,86 | 65,14 |
| MALERREKA | BEINTZA-LAB. | 22,73 | 30,30 | 7,58 | 22,73 | 3,03 | 99,00 | 86,05 | 22,73 | 7,79 | 62,01 | 43,75 | 41,56 | 14,29 | 45,54 | 76,95 |
| | BERTIZARANA | 22,55 | 34,22 | 8,75 | 19,10 | 2,65 | 89,95 | 47,30 | 16,72 | 14,13 | 45,44 | 16,58 | 42,78 | 40,64 | 78,61 | 66,38 |
| | DONAMARIA | 11,29 | 27,82 | 26,61 | 16,13 | 10,89 | 98,43 | 73,04 | 17,15 | 10,17 | 65,41 | 32,26 | 45,16 | 19,35 | 53,23 | 73,68 |
| | DONEZTEBE | 22,14 | 39,12 | 10,68 | 16,99 | 3,99 | 84,03 | 27,70 | 12,42 | 13,17 | 37,50 | 6,09 | 38,15 | 55,76 | 66,14 | 60,38 |
| | ELGORRIAGA | 14,53 | 23,08 | 28,21 | 21,37 | 5,13 | 95,91 | 60,23 | 17,82 | 12,07 | 44,83 | 23,61 | 41,67 | 34,72 | 66,67 | 60,56 |
| | ERATSUN | 6,61 | 52,89 | 17,36 | 7,44 | 2,48 | 100,00 | 95,36 | 15,90 | 1,03 | 70,26 | 19,51 | 53,66 | 24,39 | 73,17 | 69,28 |
| | EZKURRA | 26,74 | 28,49 | 18,60 | 12,79 | 1,74 | 98,87 | 95,49 | 17,16 | 9,33 | 66,04 | 14,85 | 66,34 | 18,81 | 82,18 | 72,99 |
| | ITUREN | 11,62 | 53,52 | 27,22 | 5,81 | 0,00 | 99,36 | 96,79 | 15,03 | 6,26 | 71,40 | 21,48 | 51,68 | 26,85 | 72,48 | 67,89 |
| | OITZ | 6,48 | 59,26 | 29,63 | 2,78 | 0,93 | 99,35 | 66,88 | 14,47 | 5,03 | 57,23 | 25,40 | 50,79 | 23,81 | 68,25 | 70,54 |
| | SALDIAS | 2,17 | 48,91 | 23,91 | 8,78 | 7,61 | 99,39 | 97,58 | 17,16 | 4,73 | 64,50 | 46,67 | 38,33 | 15,00 | 50,00 | 66,14 |
| | SUNBILLA | 13,32 | 47,20 | 21,03 | 12,15 | 0,00 | 99,14 | 78,51 | 18,64 | 6,78 | 74,58 | 21,40 | 52,77 | 25,83 | 73,80 | 73,88 |
| | URROTZ | 41,53 | 24,58 | 13,56 | 4,24 | 5,08 | 99,44 | 76,84 | 14,44 | 5,00 | 54,44 | 29,69 | 54,69 | 15,63 | 64,06 | 72,06 |
| | ZUBIETA | 11,98 | 22,12 | 23,50 | 11,98 | 0,92 | 99,69 | 94,04 | 21,50 | 6,23 | 79,13 | 42,86 | 29,37 | 27,78 | 56,35 | 75,46 |

Datu guzi hoauek, portzentaietan agertuak eta eskualdeko 25 udalerriei dagozkienak, goiko kuadroan ageri dira.

Aldagai guzi hoiek alderdi politiko desberdinen botoetan duten eragina jakiteko, metodologiarik egokiena, koerlazio koefizienteak kalkulatzea da. Alde batetik aldagai politikoak jarriko ditugu, eta bertzetik, gainerako aldagaiak. Hurrengo orrialdean ikusiko duzue aipatzen dugun hau.

Nahiz eta balore altua duten koerlazio koefiziente guti egon, +/-0,250a gainditzen duten baloreetan erreparatzen badugu, alderdi bakoitzak dituen botoen gibeltik dauden joerak ikusiko ditugu.

# Bi ondorio nagusi:

1.- HIZKUNTZ KOMUNITATE BATEKO PARTAIDE IZATEAK ERRANAHI POLITIKO GARBIA DU

2.- ABERTZALETASUNEAN, SOZIAL MAILAK GARRANTZIA NABARMENA DU

Datuak ikusirik, bi ondorio nagusi ageri zaizkigu. Batetik, hizkuntz komunitate bateko partaide izateak erranahi politiko garbia duela. Izan ere, alderdi abertzaleek indar gehiago dute euskara indartsuago dagoen tokietan, eta alderantziz, euskara ahulago dagoen tokietan, abertzaleak ez diren alderdiek dutela nagusigoa. Bigarren ondorio gisa, zera ikusten dugu: abertzaletasunean sozial mailak garrantzia nabarmena duela, industria sektorea eta jornalpeko populazioarekin duen lotura estua ikusirik. Lotura hau garbi-garbia da HBren kasuan, eta kontutan hartzekoa EA eta PNVren kasuan ere. Horren arrazoia ikusteko, kontutan hartu behar da eskualdeko populazio industriala nagusiki bertan sortutakoa dela eta bertze probintzietatik etorritakoek garrantzia ttikia dutela. Abertzaletasuna Nafarroako mendialdean 1936a baino lehen tradizio ttikikoa izan arren, azken hiru hamarkadetan gure eskualdean eman den industrializazioak boto abertzalearen alde jokatu du, eta aldiberean, bertako ezaugarri sozial, ekonomiko eta laboralak direla medio, ukitu erkertzale edo erdi-erkerraldekoa gaineratu dio.

Bertzalde, bereziki aipagarria da PSOE eta UPNk industriako langileetan duten oihartzun eskaxa eta nekazaritza eta zerbitzu sektorekoen artean duten sustengu zabala, biak ere, kontzientzia sozial minimorik gabeko sektoreak.



**Fernando MIKELARENA**
Historiagilea

**BOTO ABERTZALE GUZIAK**

Ageri denez, boto gehiago dago euskaldun gehiago dagoen herrietan (0,332), eta batez ere, etxean euskaraz egiten duten tokietan (0,503). Jornalpekoak gehiago diren tokietan ere, boto abertzalea gailentzen da, eta nekazarietan eta jende zaharretan gutiago (-0,273 eta -0,263).

**ABERTZALE MODERATUAK**

EA+PNVren botoetan, harrigarria da euskararekin zerikusia duten bi aldagaietan duen koerlazio eskaxa. EA eta PNV, bakoitza bere aldetik harturik, ezaugarri ahulagoak agertzen dituzte. Deigarria da EAren kasua. Boto guzien %20a herri gehiagotan gainditzen duen alderdia izanik, kasik ez du faktore garbirik hori horrela izatea ondorioztatzen dutenik. Bakar bakarrik zera ikusten da: EAren botoemaileetan bertze probintzietako jende guti dagoela (-0,339). PNVren kasuan ere, garbi ikusten den faktore bakarra zera da: herrian sortua izatea (0,326).

**HERRI BATASUNA**

HBk dituen botoen azalpena, Boto Abertzale Guziak aztertzerakoan erabili dugunaren antzekoa da. HBk boto gehiago ditu euskaldunen artean (0,346), etxean euskaraz egiten dutenen artean (0,434), jornalpekoetan (0,374) eta industriako langileetan (0,449). Eta boto gutiago ditu nekazarietan eta herrian sortuak ez direnetan.

**UPN ETA PSOE**

Biak azalpen berdintsua dute. Justuki, Boto Abertzale Guzien kontrako kasua dira, batez ere HBrekin konparatu ezkero. PSOEren botoa nagusi da Zerbitzu sektorean (0,334), jende zaharretan (0,302), jornalpeko gutiago dagoen tokietan (-0,439) eta euskara ahulago dagoen tokietan (-0,441 eta -0,610).

UPNren botoemaileak PSOErenak duen etorki beretsua baldin badu ere, koerlazio baloreak pixka bat apalagoak ditu. ■

**BOTOEN KOERLAZIO KOEFIZIENTEA**

**ARGIBIDEAK:**
**0,000**ra hurbiltzen diren baloreek bi aldagaien arteko harreman falta osoa adierazten dute.
**1,000**ra hurbiltzen diren baloreek bi aldagaien arteko harremana haundia dela adierazten dute.
**-1,000**ra hurbiltzen diren baloreek bi aldagaien arteko harremana kontrakoa dela adierazten dute.

| | EA | PNV | EA + PNV | HB | BOTO ABERTZALE GUZIAK | UPN | PSOE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EUSKALDUNAK | 0,124 | 0,028 | 0,138 | 0,346 | 0,332 | -0,271 | -0,441 |
| ETXEAN EUSKARAZ | 0,235 | 0,019 | 0,241 | 0,434 | 0,503 | -0,409 | -0,611 |
| 65 URTETIK GORAKOAK | -0,198 | -0,114 | -0,267 | -0,175 | -0,263 | 0,147 | 0,302 |
| BESTE PROBINTZIETAKOAK | -0,339 | 0,028 | 0,309 | 0,175 | -0,134 | 0,151 | 0,141 |
| HERRIAN SORTUAK | 0,033 | 0,326 | 0,249 | 0,382 | 0,481 | -0,449 | -0,402 |
| NEKAZARITZA | -0,104 | -0,115 | -0,177 | -0,311 | -0,273 | 0,224 | 0,247 |
| INDUSTRIA | 0,238 | 0,081 | 0,285 | 0,449 | 0,447 | -0,383 | -0,502 |
| ZERBITZUAK | -0,182 | 0,037 | -0,151 | -0,179 | -0,229 | 0,211 | 0,334 |
| JORNALPEKOAK | 0,205 | 0,126 | 0,283 | 0,374 | 0,427 | -0,357 | -0,439 |
| IKASKETARIK GABEKOAK | -0,162 | 0,025 | -0,139 | -0,117 | -0,174 | 0,205 | -0,012 |

tipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

EGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.000 ALE

GITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-en. **Publizitatea:** Miren Kar-e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor zena, Joxemanuel Irigoien. **ministrazioa:** Amaia Goia. **edakzio taldea:** Pello Ape-xea, Juainas Paul, Kristina an, Bittori Telletxea. **riemaileak:** Joseba Azpiroz, eban Arozena, Juana Mari zar, Ainhoa Mutuberria, Iban si, Txema Aldabe, Pello egia, Txema Urroz, Patxi andorena, Daniel Martirena, bel Maia, Josune Etxebeste, blo Mendiburu, Joseba rabide, Alizia Olaizola, Margari enike, Koro Irazoki, Mixel rendiain, Jacqueline, Elixabet ria, Garbiñe Maiz, Oskar perena, Alberto Sansiñena, lo Apezetxea, Aitor Arozena, tina Boan. **Kolaboratzaileak:** NE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel unartea, Joxe Javier Etxe-ria, Arantxa Zabala...
**rimategia:** Gertu (Oñati).
***i-ttapa**k ez du bere gain har-n derrigorrez, aldizkarian adie-tako erranen eta eritzien eran-kizunik.
**kunde Laguntzaileak:** Bera, za, Goizueta, Areso, Baztan, lazubi, Zugarramurdi eta ako udalak, Bortzirietako skara Mankomunitatea, errekako Zerbitzu Mankomu-tea...

Aldizkari honek Nafarroako obernuaren laguntza jaso du




GAURKOTASUNEKO GAIA

# *Maiatzaren 29an aldaketarik antzemanen ote dugu?*

## 'Nafarroan ze berri zaharrak berri!'




Miguel ASIAIN
Irakaslea Lekarozen


*'Lehenagoko lepotik burua'*. Hauteskundeen hurrengo egunari begira gauza bertsua erraten ahal dugu guk, zertaz azken 10 urteotako panorama politikoa pixka bat aldatu bada ere, funtsean berbera izaten segitzen baitu: UPN 16, PSOE 12, CDN 11, IU 9, HB 6, eta EA 2.

*'Arrainak gan eta sareak heda'*. Gobernua osatzeko orduan jadanik proposamenak eginik dira eta EAkoek lau haizetara barreiatu dute ohatze zabal zein estutan elkartuko direla edozeinekin.

*'Aintzinetik ederki eta ondotik atxiki'*. Aurten partidu berria sortu zaigun CDNk sustrai sakonak dituen 'nabarrakeriaren' oinarriak pixka bat bederen mugituko ditu luzeko baina ez du iduri behinpin hurrengo egun honetan.

*'Zer da berri, iaz hil zena ez dela ageri'*. PSOEren barnean eman den atzentzeko gogo hori ongi atera da. Bere aintzinekoa, Urralburu jauna mundu guziaren aho mihitan egon zeneko oroimena itzali nahiko dute sozialistek, eta horretarako presidente berria baino gauza hoberik ez dute izanen.

Eta teoriatik praktikara, aztilan honetan txoritxo batek errana, gobernua PSOEk, CDNk eta EAk osatuko dute. Alli lehendakaria.

*'Nafarroan ze berri, zaharrak berri!'*.

## 91ko hauteskundeek markatutako joera baieztatuko da




Koteto JUANIKORENA
Zubietako alkate ohia


Nafarroako Parlamentuari dagokionez, 91ko hauteskundeek markatutako joera baieztatu eginen da maiatzaren 28an. Hiru bloke nagusi ikusten ditut hor, eta itxura denez, Sanz eta Alli bakoitxa bere aldetik agertu arren, eskuinak gora eginen du. Ezkerrak beheiti eginen du eta baita abertzaleak ere. Zona mailan EAk zer eginen duen zaila da jakitea aldez aurretik. Nik ez diot aldaketarik ikusten bainan jeitsiko dela esaten dute. Seguraski mantendu eginen da. Nire ustez Baztanen goiti eginen du eta Donezteben ez dut uste galduko duenik. UPNk orokorki goiti eginen du eta Alliri itzala egiteko Aznar ekarriko dute, eta horrek, emaitza onak ekarriko ditio gainera. HBri dagokionez, ahul ikusten ditut. Zerrendetan lehengoak erretiratu dituzte eta jende berria sartu dute. Boto aldetik beheiti eginen duela ikusten diot. Ezin da sobera sinetsi inkestetan eta kanpainari ere begiratu behar zaio.

## Jende jakinekiko tratu bizia gustatzen zait niri




Patziku PERURENA
Ikerle eta idazlea


[ Atertu dio erasoak: CP 21, KU 590, HO 13...

Begiratu hodei horri, eta formula kimikoa iduritzen niri! Halaxe da, izan ere, botu bidezko demokrazia: formula kimiko hutsa. Ni behintzat, hotz eta motz uzten nau sixtima horrek.

Eguneroko bizitzan ematen edo ukatzen diot nik nere botoa, han edo hemen, hari edo horri. Etxean ikasia dut: *"Nere bototik bai..."* edo *"Nere bototik ez..."*, baina, behar den lekuan eta garaian, kararik kara, argi eta garbi esaten. Eta normala: horixe egiteko ere kapaz ez den jendajea ugaltzen ari da ixilpeko beste sixtima xuri hori.

Nik ez daukat nere buru zar hau, ixilpeko lumero baten truke saltzeko, eta gutxiago lau urtez lumero baten itzalean nahi ahala zerrikeri eginez nornahi gizentzen edukitzeko.

Niri ez didate sigla edo lumero zikin batzuk deus esaten. Jende jakinekiko tratu bizia gustatzen zait niri: eta giza gogoaren ordez, lumero ttar batekin aski duenari, metroa emanen nioke bere gogoa neurtzeko.]


ttipi-ttapa
5.900 harpidedun
20.000 irakurle

EROSLE
LESAKA
Bittiria, 67 - © 637264

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago

## BOTA BERTSOA



*Inaxio Errandonea*

**Manolo AROZENA**

Doinua: Egañaren zortzi puntukoaz

*Lesakatikan Bera artean*
*dabila zure itzala*
*umetatikan nabarmen zegon*
*mutiko fina zinala*
*mila borrokan gogortu zaizu*
*eskuetako azala*
*gizon goxo ta apala*
*lagunentzako leiala*
*euskaldun jator bezala*
*urte batean jokatzen duzu*
*laugarren aldiz finala*
*erakutsiaz pilotari on*
*eta haundi bat zerala.*

*Hiru hormaren erdian sartzen*
*zuk eman ohi duzu dena*
*burua argi, esku ta zango*
*indarra eta kemena*
*zure jokoa hain da polita*
*egokia eta gardena*
*Nafarroaren lorpena*
*zugan isladatzen dena*
*merezi duzu omena*
*nahiz ta Beloki izan daiteken*
*gaztea eta lerdena*
*Aupa Inaxio! irabaz ezak*
*erone baihaiz onena.*

## IRAKURLEAK MINTZO

### Berako Udal Gobernu Batzordeari

Bi aldiz zuzendu naiz Berako Herriko Etxera Gorostepalabordara doaien bidea konpontzeko eskaera luzatuz.

Lehendabizikoan ez zenidaten erantzun, eta bigarrenean, karta labur batean, Hirurteko Plangintza dela eta, gure eskaera 1995ean konpondu beharreko bideen artean sartua zela erraten zenidaten.

Eskaria egiten nuen bigarren aldia izanik, oraingoan baietz moldatuko zenutela espero nuen.

Eta hara non, zur eta lur gelditu naizela zuengandik oraindik inolako erantzunik hartu ez dudanean eta TTIPI-TTAPAko 156. alean agertzen den zerrendan, aurten konpondu beharreko baserri bideen artean Gorostepalako bidea agertzen ez denean.

Jakin nahiko nuke zeren baitan banatzen dituzuen eta ez dituzuen banatzen bideak konpontzeko dirulaguntza horiek, nik neuk ere bertzeak adinako beharra baitut, eta bide batzuk aldiro sartzen dituzue moldatze planetan eta bertze batzuk berriz, urteak eta urteak daramakigu esperoan.

J.A.I.
15.824.327

**OHARRA:**

*Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*




LESAKA


KATTU
OSTATUA
JATETXEA
MATXINBELTZENEA
LESAKA
Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA
✆ 63 07 63

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Egunkaria 95-V-5

*«Beraiek amerikarrak ziren, bertan jaiotakoak, gurasoak ere bai, aitona-amonak beharbada euskaldunak, eta euskaraz ikasi, euskal kulturan sartu. Bitxia da baina oso polita».*

**Iñaki Pikabea**
Berako sukaldaria
Egunkaria 95-V-5

*«Gaur egun laxoa ez da lehen zena, nahiz eta oraindik giro ederra sortzen duen, ez du lehen haina jende mugitzen».*

**Tiburtzio ARRAZTOA**
Laxoa Elkarteko kidea
Diario de Noticias 95-V-8

## 11 GALDERA LABUR



**Josetxo APEZETXEA**
Xorroxin Irratiko lankidea

- **Gustoko lana duzu?**
- Hasmenta ez bainan denborarekin gustoa hartu diot..
- **Laneko gauzarik onena eta txarrena?**
- Onena jendea ezagutzeko bertze modu bat dela, eta txarrena, entzuleen presioa.
- **Xorroxinen programarik onena?**
- Jubilatuena.
- **Zein politikori eginen zenioke elkarrizketa bat?**
- ...?
- **Egun traketsa duzunean, entzuleak nabaritzen ote du?**
- Dudarik gabe.
- **Eta egun ona duzunean?**
- Orduan normal bezala hartuko dute.
- **Titularretan zer irakurriko zenuke gustora?**
- Buff... hainbertze gauza.
- **Zerk haserretzen zaitu?**
- Emandako hitza ez betetzeak.
- **Kritikari zenbateko garrantzia emanen zenioke?**
- 1etik 10era 8 bat, beti ere kritikoaren arabera.
- **Zein da gehienetan jartzen duzun musika?**
- Erritmoduna bainan goxoa aldiberean.
- **Asteburutan zer gustatzen zaizu egitea?**
- Lasai egon eta beharbada kontzerturen bat entzutea.


OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

ZIZKA OSTATUA
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K. 82 - 31780 BERA
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

AYLA ARGAZKINTZA
• Estudioa
• Erreportaiak
• Ezkontzak
• Argazki materiala
• Fotokopiak
• Bideoa
• Markoak

Bixente Taberna
Legia karrika nº 4
BERA © 630597

Bera

# 413 milioikoa izanen da udal aurrekontua

## Zaharren egoitza egiteko 70 milioi erabiliko da eta baserri bideak konpontzeko 55 milioi

KRISTINA BOAN

Maiatzaren 2an egindako udal batzarrean, 95. urterako aurrekontuak onartu zen. Horren arabera, 413 milioi pezeta beharko ditu udalak aurten herriko beharrei erantzuteko.

Milioi horiek honela izanen dira invertituak:

Herriko Etxeko langileen soldatak, 61 milioi; zerbitzu publikoak, 63 milioi; finantz gastuetarako 26 milioi; erakundeentzat –musika eskola edo mankomunitateak, adibidez–, 36 milioi. Dirutzarik haundiena, halere, inbertsiotan joanen da, 187 milioi. Horietatik 70 milioi pezeta, Zaharren egoitza berria eraikitzeko erabiliko da eta bertze 55 milioi, baserri bideak konpontzeko izatea espero da. Amortizaziotan, azkenik, 38 milioi joanen zaizkio udalari aurtengoan.



Gure Txokoak antolatutako Bertso Paper lehiaketako sariak banatu ziren Kultur Etxean maiatzaren 7an. Argazkian, Julen Zelaieta, irabazleetako bat bere bertsoak kantatzen

### Gure Txokoako batzorde berria

Joan den apirilaren 28an, Gure Txokoa elkarteak bere urteroko bilera egin zuen gai bakarrarekin: batzorde berriaren osaketa.

Elkarteko sail diferenteek beren arduradunekin jarraituko dute orain arte bezala, aldaketa goiko karguetan planteatzen zen, azkenik interesatu hauek agertu zirelarik: Fernando Berasain (lehendakaria), Javier Pacheco eta Ganuza (lehendakariordeak), Ainhoa Martinez (idazkaria) eta Belen Arribillaga (diruzaina).

Euren erronkarik haundiena 1995 eta 1996 urteetan elkartea aitzinera ateratzea da.

### Maketa grabatuko du abesbatzak

Aurten Nafarroako abesbatzen konzentrazioa Beran ospatuko denez, gastuei aurre egiteko abesbatzak maketa bat grabatuko du. Hasiera batean, beratarren artean saldu ko da. Hamabi euskal kantaz (eliz kantak, polifoniak eta tradizionalak) osatuko da.

### ttipi-flash

**300.000** pezetako dirulaguntza jaso du Berako jubilatu elkarteak bigarren urtez Nafarroako Aurrezki Kutxatik.

**Toki Onako ikasle sarituak** Federico Fernandez eta Laura Arribillaga, Toki Ona institutuko ikasleek hilabete bat atzerrian pasatzeko aukera izanen dute, ikasten ari duten hizkuntza praktikatzeko. Ordezkoak ikastetxe bereko Esteban Irisarri eta Aitor Saenz izanen dira. Bertzalde, Maite Larretxea, Itziar Igoa, Barbara Orillard, Aitor Berrueta, Gema Sein eta Iñigo Senper-ek ehuna mila pezeta jasoko dituzte.

**Igerilekuaren** mantenimendurako lehiaketara proposamenak aurkezteko epea zabalik izanen da maiatzaren 18a bitarte. Lan honetan pistzinaren garbiketaz gain ostatuaren ardura sartzen da. Eskaerak Herriko Etxeko idazkaritzan aurkeztu behar dira.




© 631076 • BERA

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GOZOTEGI - JAIONE

Itzea 3 • 630786 • BERA


J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 09 67
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

Lesaka

# Kirol eta kultur elkarteendako dirulaguntzak banatu ditu udalak

## Guztira ia 4 milioi banatuko dira, 2.035.000 pezeta kulturarako eta 1.950.000 pezeta kirol ekitaldietarako

AITOR AROZENA

Kirol eta kultur taldeek aurten hartuko dituzten dirulaguntzak banatu zituen udalak azken batzarrean, kultur batzordeak prestatutako idatzia aztertu ondotik.

Guztira, ia 4 milioi emanen dira, horietatik 2.035.000 kultur ekitaldietarako eta gainerako 1.950.000 pezetak kiroletarako.

Kulturan, laguntzarik haundiena Irain eskolak jasoko du, prestatu dituen lau egitarauen truke 600.000 pezeta jasoko baititu.

**3.094.384 pezetako dirulaguntza hartu du udalak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailetik, Irain eskolan egin beharreko zenbait moldaketa direla eta. Lanen aurrekontu osoa 4.775.284 pezetakoa da.**



400.000 pezeta hartuko ditu musika bandak eta 335.000 txistulariek. Kiroletan berriz, Beti Gaztek jasoko du dirutzarik haundiena, 1.250.000 pezeta.

### Igerilekuak %10 garestiago

Igerilekuan sartzeko prezioak %10ean igoko dira udan. Helduendako urteko abonoa 3.300 pezetakoa izanen da eta egunerokoa 330. Hameka eta hemezortzi urte bitartekoentzat 1.650 eta 170 pta; lau eta hamar urte bitartekoentzat, 1.100 eta 110 pta.

### ttipi-flash

- **6,4 milioi** pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak elizan zenbait moldaketa egiteko.
- **Trenbidea** Lurrizti baserritik errepidera bitartean moldatuko da, zuloak berdinduz.
- **38.500.000** pezetako aurrekontua izanen du aurten Andra Mari erresidentziak zuzentzen duen organismoak.

## Xabier Martin eta Jon Arozena intsumisoen epaiketen kontrako ekitaldiak

Maiatzan herriko bi intsumisoei eginen zaien epaiketen kontra protestatzeko zenbait ekitaldi burutzen ari dira egunotan (bideo emanaldiak, hitzaldiak, asanbladak...).

Asteburuari begira, larunbat honetan manifestazioa aterako da, txaranga eta guzi, Plaza Zaharretik. Egun berean, gaueko 10etan, afaria eginen da Arrano elkartean (izena maiatzaren 19a baino lehen eman behar da). Intsumisioaren aldeko eta epaiketen aurkako egitarau zabal honi bukaera emateko, maiatzaren 22an, asanblada izanen da Plaza Zaharrean.

Xabier Martin asteazken honetan epaitu behar zuten eta Jon Arozena berriz, datorren astean, maiatzaren 23an.



Xabier Martin



Jon Arozena





BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEREAU
jatetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 • 627509 - Faxa: 627647
LESAKA



ttipi-ttapa
6.000 harpidedun
20.000 irakurle

Etxalar

# Pilota txapelketarako deia egin du Altxata elkarteak

Maiatzaren 21a arte ematen ahal dira izenak eta Andremaritan jokatuko dira finalak

PELLO ETA ALBERTO



Hiru herrien arteko eskola topaketa egunean plazak haur bisitari ugari izan zituen

Txapelketa, aitzinekotan bezala, eskuz eta palaz jokatuko da. Haurren eta helduen txapelketa bereiz izanen da, eta gizasemeek nahiz emakumeek parte hartuko dute. Izenak emateko epea maiatzaren 21ean akautu eta berehala hasiko dira partiduak; finalak, berriz, Andremaritako programan sartuko dira.

## I. Kamiseta diseinu lehiaketa

Altxata elkarteak kamiseta diseinu lehiaketa antolatu du, honako baldintzetan: Marrazkiek, borobilak edo kuadratuak, 30x30 zmkoak izan beharko dute, gehienez. Lau kolore plano edo guttiagotan, koloreak nahastu gabe, alegia. Gaia: Etxalar. Bi maila: 12 urte arteko haurrak eta Helduak. Sariak: haurrentzat bi kamiseta, helduentzat 20.000 pezeta. Epea: ekainaren 15a. Informazioa eta lanak ematea Basatean. Marrazkiak ekainaren 18an, plazan, agertuko dira, eta marrazki irabazlearekin bestetarako kamiseta eginen da.

## Dantza ikastaroa

12 mutilek eta 16 neskak osatzen duten taldea maiatzaren 6an hasi da jotak, arin-arin eta fandangoak ikasten. Hori baita lehenik ikasiko dutena, nahiz eta gauza gehiago ere sartu gero. Entsaioak larunbatetan bi orduz egiten dira, Lesakako irakasleren gidaritzapean.

### ttipi-flash

**Igerilekuetako lana**

Papittoneko Garazi eta Irati ahizpek hartu dute beren gain udako denboraldian igerilekuetako zerbitzua zaintzea.

**Eskoletako haurrak elkarrekin**

Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskoletako haurren topaketa 10ean gauzatu zen Etxalarren

Hemen, jakina da
Alli presidente
Nafar Demokraten Elkargunea
CONVERGENCIA
DEMOCRATAS NAVARROS



Igantzi

# Jendetza haundia inaugurazio egunean

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
OSKAR TXOPERENA











**Maria Urmeneta eta Patxi Txokarro**
Proiektuaren egileak

«Gure helburu nagusia herriaren barrenean ongi integratutako eraikuntza egitea izan da, gai tradizionalak erabiliaz, baina kontzepzio modernoak alde batera utzi gabe».



**Juanita Urtxegi**
Etxekoandrea

«Izugarri gustatu zait dena, gusto haundiarekin egina da eta. Orain kezkatzen nauena da horrelako leku politak, behar hainako erabilera izanen ote duen. Gure eskuetan dago eta ahalegindu beharko dugu».



**Xabier Etxague**
Arantzako udalaren ordezkaria

«Obra izugarri ederra iduritu zait eta herri barrenean ezin hobekiago integratua. Logikoa da herri bakoitzak horrelako zerbait nahi izatea, baina geuk egin arte erabat aprobetxagarria iduritzen zait aranaztarrontzat».



**Agustin Miron**
Irungo dendaria.

«Nere ustetan ez dakite ongi igantziarrek zer daukaten hemen. Niri, pisu batean bizi naizenez, izugarria iruditzen zait eraikuntza honek duen argitasuna eta ingurua. Ederra da benetan».



**Izaskun Sein**
ikaslea.

«Denontzat gauza ona izanen da gaur inauguratutakoa. Alde batetik zaharrek bere xokoa izanen dute eta guk udan denbora pasatzeko eta igerian ikasteko modua ere izanen dugu».



**Asuncion Retegi**
Etxekoandrea.

«Lehenago ere ikusia nuen baina hain ongi txukunduta hagitz polita iduritu zait Zahar-Etxea. Lan ederra egin dute eta aunitz eskertzekoak dira horrelako gauzak herrian».




HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

*Urte berriarekin batera indarberrituak Kuadrila, elkarte etabarrentzat... menu bereziak prestatzen dira*

✆ 635290
ETXALAR

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9,
☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoa
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

Arantza

# Bi herri kirol talde Nafarroako ligan parte hartzeko prest

## Infantil mailan hamar neskek eman dute izena eta kadete mailan bertze horrenbertze mutilek

GARBIÑE ETA ELIXABET



Indarra erakusteko aukera berri bat izanen dute herriko neska-mutilek Nafarroako txapelketan

Arg.:Artxiboa

Bi herri kirol talde atera dira aurten Nafarroako txapelketan parte hartzeko asmoz, infantil eta kadete mailan.

Infantiletan hamabi eta hamahiru urte arteko hamar neska arituko dira. Hauek proba konbinatuan bakarrik hartuko dute parte. Bertzalde, kadete mailan hamar mutil arituko dira. Hauek, bai sokatiran, baita proba konbinatuan parte hartzeko asmoa dute. Aurten ez da lehengo urteetan bezala finalarik izanen, txapelketa liga sistemaren bitartez jokatuko baita.

Liga lau ihardunalditan banaturik dago. Ihardunaldi bakoitzean puntuak banatuko dira eta azkeneko ihardunaldia bukatzerakoan puntu gehien dituen taldeak izanen da irabazlea.

### Eskolako ikasleen bidaiak

Maiatzaren 17tik 19ra arte eskolako hirugarren ziklokoak, bortzgarren eta seigarren mailakoa, alegia, Zuazara joanen dira kanpaldian. Lehenengo eta bigarren ziklokoak (lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren maila) aldiz, Beirera joanen dira maiatzaren 29, 30 eta 31an. Kanpaldiak Bortzirietako bertze eskola publikoekin batera eginen dira. Ume hauek naturarekin bat egiteko aukera izanen dute leku horietan.


ANTZUZELAI S.L.
Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa
Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ALBERGEA JATETXEA
✆ 634179
ARANTZA

LORA DENDA
TXIRULA
Bitiria
LESAKA
☎ 627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

koxkonta

Sagardotegia zabalik
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

IRU BIDE ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

Sunbilla

# Igerilekuaren mantenimendurako lanpostua atera du udalak

## Eraberean, igeriketa ikastaro bat antolatzeko asmoa azaldu du

IXABEL ETA JOSUNE

Udalak bando baten bidez jakinarazi du, igerilekuan lan egiteko interesatuak apuntatu behar direla Doneztebeko INEM bulegoan, "igerilekuko mantenimendurako" dela azpimarratuz. Lanpostu honetarako eskatzen den baldintza bakarra sokorrista titulua izatea da, eta taldea osatuz gero Gurutze Gorrikoak prest omen daude ikastaroa emateko, baina aldizkari hau atera orduko epea bukatua izanen da.

Bertze aldetik, jende nahikoa elkartuko balitz, igeriketa ikastaro bat antolatzeko asmoa azaldu du udalak. Interesatua dagoenak Udaletxean eman dezake bere izena



**Maiatzaren 21ean eginen dute lehendabiziko jaunartzea 11 neska-mutilek: Aintzane, Irune eta Aitor Agirre, Naiara Arretxea, Peio Altzuri, Jabier eta Luis Ibarra, Imanol Apeztegia, Jabi eta Unai Petrirena eta Egoitz Inda**

### Amerikanoen besta

Urtero bezala, Ameriketan egondako sunbildarrek bere besta ospatu zuten maiatzaren 1ean, hogeitabortz lagun bildu zirelarik. Aurten, egun horretan 'Euskaldunen Amerika' izeneko liburuaren aurkezpena prestatua zegoen. Azkenean, ez zen posible izan aurkezpen hori egitea eta bertze egun baterako uztea erabaki zuten, nahiz eta data ez jakin.

### Hauteskundeak

Hauteskunde mahaian egonen direnak hauek dira:

***Mahaiburua:*** Miguel Angel Latasa eta ordezkoak Rosa Urkijo eta Jose Manuel Huarte.

***Lehen mahaikidea:*** Mª Teresa Irazoki eta ordezkoak Bittori Jaimerena eta Jesus Elizondo.

***Bigarren mahaikidea:*** Juan Jesus Gaztelumendi eta ordezkoak Jesus Mª Arretxea eta Mª Victoria Sanzberro.

### Errepidea

Karrika Nagusiko saneamendua, hasteko punttuan dagoela dirudi. Orain dela egun batzuk, egunkari batetan agertu zen enkante edo lehiaketarako iragarkia.


**SANTAMARIA**
**Jatetxea**
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**BELARRA Kafetegia**
*Plater Konbinatuak*
Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • **DONEZTEBE**



**TELLETXEA MOBLEAK**
**Eskeintza berezia somier eta koltxoietan**
• 90KO KOLTXOIA 9.500 PZTA
• 135KO BIKOTE KOLTXOIA 12.500 PZTA
• 105KO KOLTXOIA 10.500 PZTA
EGURREZKO LAMINAK DUTEN SOMIERRAK
• 90KOA 5.600 PZTA
• 105KOA 6.400 PZTA
• 135KOA 7.500 PZTA
Kalitate hoberena eta 7 urte arteko garantia
Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Doneztebe

# Zubi berria eta karrika inauguratu dituzte

## Herriko Etxean idazkaritza berritu eta karrika aldeko leihoak moldatuko dira

TXEMA ETA KARMELO



**Elizagibela eta herriko erdigunea elkartzen dituen zubia apirilaren 30ean inauguratu zen** TXEMA

Apirilaren 30ean egin zen Elizagibela eta herriko erdigunea elkartzen duen egurrezko zubiaren inaugurazioa. Segidan, bazkaria eta dantzaldia egin zen. Egun batzuk beranduago berriz, moldaketak egin ondotik herriko zenbait karrika inauguratu ziren.

Erran behar da Union Doneztebarrako bi zinegotzik agiri bat atera zutela, zubi hau dela eta, kontrako iritzia azalduz. Alde batetik, lizentzia edo baimenari dagokionez eta bertzetik, zubiaren inpakto edo egokitasuna zalantzan paratuz.

### Moldaketak idazkaritzan

Udaletxeko idazkaritzan eta horren kanpoko aldean egin beharreko lanak Enrique Anduezak eginen ditu 3.681.623 pezetaren truke. Bi hilabeteko epea izanen du lanak akitzeko.

### Langarraren lehiaketa

Eskoletan goi zikloan, hau da, 7. eta 8. mailan daudenak bikoteka parte hartuko dute lehiaketa honetan. Maiatzaren 20an, arratsaldeko 6etan Aurtitzen izanen da lehenbiziko kanporaketa, maiatzaren 27an Donezteben eginen da bigarrena ordu berean, eta ekainaren 3an Legasan izanen da finala, puntuazio altuena lortzen duten bortz bikoteen artean.

Parte hartuko duten bikote guztiek sariak eramanen dituzte eta finalera iristen direnek sari hobeak izanen dituzte. Bikote txapeldunak berriz sari kozkorrak eramanen ditu. Suerte on denei eta animo!

### Bestetako programa

Herriko bestetako programaren berri azaldu zen azkeneko udal batzarrean, dagoeneko kasik egina baitago egitaraua.

Bestak, ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an akituko dira.

## ttipi-flash

**❖ EAren afaria**
Maiatzaren 20an, gaueko 9etan, EAren afaria ospatuko da Salaberria jatetxean afiliatu eta sinpatizante guztientzat. Apuntatzeko epea maiatzaren 19a arte zabalik izanen da, 450263 telefonora deituz.

**❖ Uhaldetako**
dragadoa egitea eskatu dio udalak Nafarroako Gobernuari.

**❖ Nafarroako Itzulia**
dela eta 'tarteko helmuga' bat izanen da Doneztebetik pasatzerakoan. Herritik ekainaren 9an goizez pasatuko da.

**❖ Kontzertua**
Piano, txistu, gitarra eta perkusioa erabiliz kontzertua eskeiniko dute Itziar, Ainhoa eta euren taldeak maiatzaren 27an, larunbatez, ilunabarreko 8,30etan elizan, mezaren ondotik.

**❖ Mª Jose Zarranz**
idazkari laguntzaileari datorren abendura arte berritu zaio kontratua.


**FUNERARIA ZERBITZUAK**
**DONEZTEBEn**
**MALDAERREKA, S.L.**
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA

**IBARROLA**
**HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA**
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



**AMEZTIA**
**Jatetxea - Hostala**
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

Elgorriaga

# Julian Garrido eta Maria Martinezek 65 urte bete dituzte ezkondurik

## Maiatzaren 7an ospatu zuten familiarekin batera

**ELGORRIAGA**

Hirutan hogeitabortz urte ezkondurik egitea ez da egunero gertatzen den gauza. Hau pentsatuz, ospakizun polita izan zuten maiatzaren 7an Elgorriagako Julian Garrido eta Maria Martinezek.

Berez, Julian Gaztelakoa eta Maria Eugikoa badira ere, Elgorriagan bizitzen hogeita hamazazpi urte daramazkite eta bertan ospatu nahi izan dituzte Diamantezko Ezteiak.

Egun berezi horretan, beraiekin batera izan ziren senideak ere, 50 lagun baino gehiago bilduz. Elizan meza aditu eta ondotik Hilarion jatetxean bazkari ederra jan ahal izan zuten.

Zorionak bieri eta familia guztiari.



**65 urte ezkondurik bete dituzte Julian Garrido eta Maria Martinezek**

Argazkia: ZALDUA



Malerreka

# Euskararen erabilera datuak kezkagarriak dira

## Karrikaz karrika egindako azterketaren arabera, Eratsunen erabiltzen da gehien eta Narbarten guttien

IBAN ISASI

Malerrekako herri guzietan egindako karrika neurketak emaitza ezberdinak eman ditu. Ezagupenari buruzko datuak baldin badaude ere, erabilerari buruzkoak, lehenbiziko aldiz egin dira. Erabilera haundiena duen herria Eratsun da eta guttiena berriz, Narbarte.

Norberak atera ditzála ondorioak, baina argi dago ezagutzetik erabiltzera jeitsiera ederra dagoela. Aipatzekoak dira, Elgorriaga, Ezkurra, Sunbilla eta Iturengo adibideak, jeitsiera hau izugarria baita.

Bertze datu iturrira joaz (Soziologia Lantegiarena, alegia) gehien erabiltzen den egoera familia eta lagun artekoa da, %45 inguru eta guttien, mediku eta erizainarekin (%20). Tokiei dagokienez, gehien etxean (%78) eta guttien administrazioan (%16).

| HERRIA | % euskaraz | % euskaldunak |
|---|---|---|
| ERATSUN | %98,29 | %96,9 |
| ZUBIETA | %90,7 | %97,17 |
| SALDIAS | %89,3 | %98,18 |
| OITZ | %84 | %94,8 |
| DONAMARIA | %81,25 | %92,47 |
| URROTZ | %80,2 | %90,17 |
| BEINTZA-LABAIEN | %75,69 | %95,34 |
| ITUREN | %59,6 | %98 |
| SUNBILLA | %54,1 | %94,12 |
| BERTIZARANA | %53,5 | %75,27 |
| (Narbarte) | %23,4) | |
| EZKURRA | %42,8 | %97,36 |
| DONEZTEBE | %38 | %69,58 |
| ELGORRIAGA | %27,2 | %91,87 |



Goizueta

# Maiatzaren 27an bertso afaria Egaña eta Lizasorekin

## Umore Ona elkartean egingo da Euskaltegiak antolatuta

ESTEBAN AROZENA

Hiru urte igaro omen dira Goizuetan azken bertso afaria egin zenetik. Herritar asko bertsoen premian egon litekeela pentsatuz, Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña ekarriko ditu euskaltegiak Umore Onara hilabete honen 27an 2.000 pezeten truke burutuko den afari batetara.

Hilaren 24a arte txartelak salgai egongo dira Urrutinea, Maritxu, Goiz-Argi eta Zubi-ondo tabernetan. Bertsolariez gain, Dani, Rosa Mari, Rakel eta Ainara trikitilariak ere elkartean izango dira hurrengo larunbatean zortziko afarian.





**Hiru ordu t'erdiz lera zakur erakustaldi ederra eskeini zuen Koikili lesakarrak herriko haurren gozamenerako. Mendi bizikleta ibilaldia maiatzaren 28an burutuko da**

Miren Uitzi

### Mendi-bizikleta

Umore Onak antolatzen duen mendi bizikleta ibilaldiak maiatzaren 28an beteko du bere bostgarren edizioa. Zirkuitoa ohikoa, hau da, herriko plazatik atera eta Kuxiñeneko bordan barrena Enekoelorrietara igo (690 metroko altuera) eta hortik dena goitik behiti berriz herriratu arte 23 kilometroko ibilbidea osatuz.

Irteera goizeko 10etan emango da, baina aurretik inskripzioa ordaindu beharko dute partaide guztiek; 14 urtetik beherakoek 200, federatuek 300 eta federatu gabekoek 500 pezeta. Inskripzio honek proba ondoren egingo den oparien zozketan parte hartzeko aukeraz gain, pintxo eta salda beroarekin hamaiketakoa egiteko eskubidea ematen du. Ez da esan beharrik noski, kaskoa eramatea derrigorrezkoa dela .

Areso

# Herritarren elkarteak autobian zenbait lan egitea eskatu du

## Inaugurazioaren ondotik Aresoz ahaztuko direlakoan daude

JUANA Mª SAIZAR

Leitzarango autobiaren inaugurazioa baino egun batzuk lehenago Aresoko herritarren elkarteak agindutako konponketak oraindik ez direla egin salatu zuen Nafarroako Gobernuaren aurrean. Iruñera joan ziren Herrilan saileko arduradunarekin hitzegitera. Ez dira gauza haundiak eskatzen direnak; paretak egin, ubideak egin eta pista bat asfaltatzea.



**Autobidea ireki ondoren, beraien eskakizunak ahaztuko direlaren beldur da Aresoko herritarren elkartea**

Arg.: Artxiboa

### Hitzaldiak

Guraso elkarteak bi hitzaldi antolatu zituen eskolan maiatzan 4 eta 11an. Gaia, helduentzako sexualitatea izan zen. Oso interesgarriak eta errez ulertzeko modukoak izan dira.

Bestalde, eliza ondoko obrak bukatu zira eta igande honetan inauguratu dituzte. Udaletxeak hamaiketakoa eskeini zien bertan agertu zirenei.

Leitza

# Kanpainako ekitaldiak prest dituzte taldeek

## Igerilekuak udan eramateko proposamenak 26a baino lehen aurkeztu behar dira

JOSEBA AZPIROZ

Hauteskunde kanpainan sartuak gaudela, herriko taldeek prestatu dituzte beraien ekitaldiak.

Eusko Alkartasunak maiatzaren 21ean Leitzelarrean duen txabolan bazkari bat egiteko asmoa du, bertara Iñaki Kabases eta Fermin Ziaurriz etorriko direlarik.

Herri Batasunak bere mitina maiatzaren 19an egingo du, arratsaldeko 8etan Karrapean. Hizlariak Maitane Intxaurraga, Sagrario Aleman eta Mikel Ilarregi izanen dira. Astelehenean berriz, Hego Euskal Herrian zehar dabilen txirrindulari karabana Leitzara iritsiko da 1,30ak aldera.

Unidad Independiente Leitzarra taldekoek berriz, prestakuntzetan dabiltza, nahiz eta hau idazterakoan ez duten deus erabaki oraindik.



**Eskualdeko 16 eta 18 urteko txirrindulariak biltzen dituen Urtxintxa taldea ageri da argazkian. Beraiekin batera Leitzako Aizan taldeak ere aurkezpena egin zuen maiatzaren 7an. Guztira 24 leitzar arituko dira bizikletan aurten, 15 ttiki, 7 kadete eta 2 jubenil** Argazkia: EGIN

### Erantzunik ez

Beste urtetan bezala, duela zenbait hilabete, TTIPI-TTAPAK Leitzako udalari dirulaguntza eskaria luzatu bazion ere, momentuz ez du inolako erantzunik jaso. Dirulaguntza hau premiazkoa da Leitzako etxe guztietan TTIPI-TTAPA banatzeko.



**Arretxenea baserriko poniak kumea izan du**

### ttipi-flash

- **UEMA Eguna** Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak Bermeon egin zuen festara Leitzatik 6 lagun bakarrik joan ziren, nahiz eta autobusa dohainik izan. Esan dutenez merezi omen zuen joatea, bertan izan zen giroa zela eta. Ea hurrengoan…
- **Igerilekuen** mantenimendurako lehiaketan parte hartu nahi dutenek proposamenak maiatzaren 26ko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko dituzte udal bulegoetan.
- **Sutarako egurra** nahi duen guztiak bere izena eman beharko du udal idazkaritzan maiatzaren 19aren eguerdiko 1ak baino lehen. Egurraren truke auzolanean egun bat egin beharko da. Gaitz egurra eskatzen dutenek ere, epe berdina izanen dute.

**KIROMASAIA, KIROPRAXIA, DRENAJE LINFATIKOA, TSIATSUA...**

*Bartzelonan diplomatu eta urte askotan aritua. Leitzan hasi da orain bizkarrezurreko mina, gerrietakoa, zainetakoa, zelulitia, barizak, gizenkorrak, operazio ondoreak, estresa eta bestelako gaitz klase asko tratatzen*

Lourdes Ardanuy
✆ 948-610763

Danbolinea 2.
LEITZA

**Lehendabiziko masajea debalde ematen du**

GARRAIO URGENTEAK
**HALCOURIER**

- Paketeak
- Dokumentoak
- Halcourier gestion

- Hiri barnean
- Hiri artean
- Nazio artean
- 10 eta 24 orduko zerbitzua

BERA (Sara 4) ✆ 630557-631267
IRUÑEA ✆ 241516

Baztan

# Erratzuko kanpalekua ofizialki inauguratu zuten maiatzaren 9an

100 milioi pezetako aurrekontuarekin egin da, horietatik 17 Nafarroako Gobernuak emanak

JOSEBA IGARABIDE

Erratzuko camping-a maiatzaren 9an inauguratu zen ofizialki. Bertan izan zen Nafarroako Gobernuko industria kontseilaria eta herriko hainbat ordezkari.

Hasiera batean 133 partzela eta 560 lagunendako lekua izanen du. Lehendabiziko kategorikoa izanen da. Camping-a egitea 100 milioi pezeta gostatu da eta Nafarroako Gobernuak 17 milioiko dirulaguntza eman du. Baztanen egiten den lehendabizikoa da eta zortzi langile arituko dira bertan.

## Ikastolari dirua itzuli

1985ean El Pilarreko ikastetxearen zati bat erosteko Ikastolako Guraso elkarteak egin zuen ordainketa. Orain, dirutza hori Balleko Etxeak ordainduko du, azken udal batzarrean ahobatez onartu zenez. Udalaren ustez, derrigorrezko lehen hezkuntza dohainekoa izan behar du nahitanahiez eta gurasoek ez dute diru hori ordaindu beharrik.



Iruritako Gure Kaiola elkarteko hemezortzigarren mus txapelketan Antonio Elizaintzin eta Jose Mª Ormart suertatu ziren irabazle



## Eskubaloiko neskak bikain

BKTko neskek hirugarren postua eskuratu zuten Bartzelonan jokatutako sektorearen fasean. Bertan bildu ziren eskubaloi taldeen maila ikusiz ez da emaitza txarra eta kontent itzuli ziren egindako paperarekin eta bizitako esperientziarekin. Ana Franzesena, Idoia Argain, Josune Iturzaeta, Ana Iturralde, Saioa eta Itxaso Salaburu, Ainhoa Goñi, Karmele Arriada eta Begoña Biela jokalariek osatzen dute taldea, Jose Iturzaeta entrenadorearekin batera.

## ttipi-flash

- **Margo erakusketa** Miguel Guzman Rosales margolari mexikarraren lanak maiatzaren 20a bitarte izanen dira ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean.
- **Musika eskolako** ikasleek kontzertua eskeiniko dute Kasinoan, maiatzaren 27an, arratseko 7,30etatik aitzinera.
- **Arraiozko frontoia** egiteko 20 milioi pezetako dirulaguntza jaso du udalak Nafarroako Gobernutik. Lanaren aurrekontu osoa 43.735.369 pezetakoa da.
- **Azienda hiltegia** martxan jartzeko 55 milioi pezeta jaso ditu udalak Nafarroako Gobernuko Abelzaintza, nekazaritza eta mendi sailetik. Proiektua onartu du udalak, baina 'obra zibila' zenbat gostako den jakin nahi du aitzinetik.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

GAS ASKAITZ
fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

Baztan

# Dirulaguntza udalari musika eskolarako

## Udal artxibategi historikoa txukuntzeko, ordea, ez zaio subentziorik eman

JOSEBA IGARABIDE

Musika eskolak dituen funtzionamendu eta pertsonal gastuen ordainketarako 2.626.554 pezetako dirulaguntza eman dio udalari Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta kultura sailak. Bertzalde, sail berak gibelera bota du Baztango udalak artxibategi historikoa txukundu, antolatu, mikrofilmatu eta katalogatzeko egin zuen eskaria. Nafarroako Gobernuaren erranetan, aurten ez dago nahiko dirurik horretarako.



Zigako Maineako Bonifacio Ibarra eta Francisca Argain eta Almandozko Goentxeako Joxe Oskoz eta Maritxu Irigoienek Urrezko Ezteiak ospatu dituzte maiatzan Arg: ZALDUA

### Gizarte laguntzaileak kontsulta ordutegia aldatu du

Baztango Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte laguntzaileak hurrengo hilabetetarako kontsulta ordutegia aldatu du. Astelehen, astearte eta asteazkenetan Elizondon izzanen da goizeko 9etatik 12etara. Ortzegunetan Urdazubin 9etatik 11etara eta Zugarramurdin 11etatik 1etara. Ortziraletan Elizondon, 9etatik 12etara. Ekainetik irailа bitarte, hilabeteko bi lehendabiziko larunbatetan 9etatik 12etara Elizondon izanen da. Ordua eskatzeko 580006 telefonora deitu behar da.

Bertzalde, Baztandarren Biltzarrak batzar orokorra burutu du. Barne egiturari buruz eta elkartearen funtsa, beharra eta norabideaz solastu zen.

### Ordokiko industrigunea

Arizkungo Ordoki inguruan laugarren enpresa batek lurra eskatu du. Oraingo honetan, aitzinetik zeuden okindegia argizari fabrika eta likor fabrikarekin nekazal tresnak salduko dituen enpresa batek eskatu du lekua.

### ttipi-flash

- **Kultur Eguna** Francisco Joaquin Iriarte erresidentziak maiatzaren 31an ospatuko du bere Kultur Eguna, Elizondoko frontoian.
- **Berroetako** eskola moldatzen ari dira INEM eta udalaren arteko komenioaren diruaren bidez. Egoera txarrean zegoen eskola.
- **Antero Etxandi** arraioztarra da Baztango arrantzale eta ehiztari elkarteko lehendakari berria.
- **Bagordin** bukatuko da aurten ere Nafarroako txirrindulari itzuliko hirugarren etapa. Edizio honetan, afizionatu mailako txirrindularirik onenak parte hartuko omen dute.
- **Hauteskunde kanpainan** indarrean sartuak gara. Kartelak leku bitxietan agertzeaz gain, pintada iraingarriak agertu dira HBko kartelen gainean, AEKk ikastolan zuen muralean eta zenbait ostatuetako paretetan.

ELIZONDO
Tel. 58 01 55
DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25
FOTO MENA
ZEURE JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKIAK HOBERENAK IZATEA NAHI BADUZU ZATOZ FOTO MENARA
FOTO MENAN EGUN NABARMENAK AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU
PROFESIONALAK GARA
ETOR ZAITEZ ETA IKUS EZAZU
QSS FOTOS EN 1 HORA
ESKATU ORDUA

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
UDABERRIKO ARROPAK
Konjuntoak, soinak, gonak, galtzak, amerikanak, kamisetak, blusak, jertseak, txalekoak...
KONPLEMENTOAK eta OPARIAK
Zinturoiak, boltsoak, karterak, belarritakoak, lepokoak...

Sara

# Rugbya: Haundienen ildotik landareak loratzen

## Hazparne eta Miarritzeko lehiaketa irabazi dute 'Minimes' mailan

MIXEL ETA JACQUELINE

Maiatzaren lehenean rugby eskolen lehiaketan, Sara, Senpere eta Azkaingo haurrak biltzen dituen taldeak ('minimes' mailab) Bardoze garaitu zuen finalean 17 eta 0. Badirudi haundien urratseri jarraikitzekotan direla eta beren balentria berritu dute Miarritzeko lehiaketan parte hartuz maiatzaren 8an eta Hazparneren aurka 10 eta 0 irabaziz. Entrenatze berezi baten ondorioz kopa eder batekin itzuli dira. Haur hauetaz arduratzen diren hezitzaileak Martin Goienetxe, Michel Brisson, Joseph Salha eta Claude Etxegarai dira eta ttikienekin egindako lanarengatik eskertzen ditugu.

**Frantziako lehendakaritzarako HAUTESKUNDEAK**

| | SARAn | | FRANTZIAn |
|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | % |
| CHIRAC | 840 | 69,36 | 52,64 |
| JOSPIN | 371 | 30,64 | 47,36 |
| Boz emaileak | 1.283 | | |
| Abstentzioa | | 23,40 | 20,35 |

### Aste buru arin arina, dantzarien eskutik

Bi egunez euskal dantza ospatua izan da, eta Zazpiak Bat taldeak parte hartu du ekitaldi ezbedinetan.

Maiatzaren 7an Oñatin Dantzari Eguna, 14 urtez goitiko 3.000 bat gazte elkartu dira eta Euskal Herri osoa hor zegoela erran dezakegu, 110 taldek beren ordezkariak igorriak baitzituzten. Saratik 20 bat neska-mutil joanak ziren. Maiatzaren 8an berriz, Atharratzen ospatu zen Dantzari Ttiki, Iparraldeko haurreri idekia. Hor elkartu ziren 1.600 haurren artean 50 Saratik joanak ziren.

Bi egun hauek oso baikorrak atera dira. Froga bat gehiago gure sustrai eta ohidurek badaukatela indar.

Egun hauek Euskal dantzarien biltzarrari zor dizkiogu.

### ttipi-flash

**Andoitzen Bordako**
Jan Pierre Tapiak urtarrilan bukaeran min hartu zuen zuhaitz baten gainetik erorita. Bere etxerat itzuli da Bordeleko eritetxe batean hiru hilabetez egon ondoan.

**Apirilaren 30eko gaupasan**
1.600 sartze salduak izan ziren eta arras ongi joan zen. Kontzertua bikaina izan zen Exkixu eta Sustraia lagun. Gelditu mozkina Olhain ikastola eta Gaztetxearen artean banatu izan da.

ERRATZU
OKINDEGIA
zure eguneroko ogia
✆ 453168 - ERRATZU

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA
Astearteetik ortziralat Betatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik.
✆ 45 21 21 • LEKAROZ

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

FOTO ZALDUA
KOMUNIOAK
Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.
Hartu ordua:
ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364
EGUN HAUNDI BATERAKO OROIGARRI ON BAT

Urdazubi

# Herriko bestak maiatzaren 24tik 28ra ospatuko dira

## Lezeetako hameketakoa eta zikiro jatea larunbat eguerdian izanen dela, aurtengo berrikuntza nagusienak

ALIZIA OLAIZOLA



Jakina den bezala laister hasiko dira herriz herri bestak. Salbatoretako bestak izanen dira lehenbizikoak, nahiz eta beranduxeago ospatu aurten. Bestetako egitaraua TTIPI-TTAPAko gehigarrian heldu da. Ikusten denez, joan den urtetik honat aldaketa batzukizan dira.

Ortziralean, 26an, lezeetan aperitiboa izanen da eta lezeak ikusteko aukera herritarrendako, sarrerak dohainik izanez. Orain dela gutti lezeetan konponketa batzuk egin dira, argiak ongi paratu eta ibilbidea egiten arizarenean lezeen istorioa entzuten ahal da. Orain arras ongi prestatuak daude. Aipatu behar da lezeak subastan atera ziren berriki. Orain artio Francisco Javier Varela zen lezeen arduraduna eta hemenik aitzina Leorlasko Xokoneako familia izanen da.

Larunbatean 27an, aspaldiko urtetan bezala zikiro jatea arratsean egin eta parriletan erre ordez, aurten eguerdiz egitea pentsatu da, Zugarramurdiko Joxe Angel Olaizola izanen da zikiro erretzailea eta makiletan eginen du.

Zugarramurdi

# Etxe berriak egitera animatu da herriko jendea

## 1960tik 1965a bitarte jaiotakoen kinto besta, bertzalde, ekainaren 3an ospatuko dute Armuan

KORO ETA MARGARI



Begoña eta Titino bizi dira Bazterretxean

Lehen aipatua izan dugu herrian dagoen etxebizitza eskasia, eta horregatik ote den edo, azken hauetan jendea etxe berriak egiteko lanetan sartzera animatu da. Bukatu eta ia bizitzen ari dira Baztetrretxea eta Landegin; lanak aintzinduak dituzte Beskorrea eta Sorginaldek; eta luze gabe hasteko intentzioarekin daude Francisco eta Mentxu, beti ere inguruko etxeen itxura errespetatuz.

Bertzalde, bertze nekazal-turismo etxe bat edeki da berriki. Orain arte Sueldegia, Teltxegia eta Martinea ziren eta hemendik aintzina Etxe-aundia ere hor dago bere zerbitzua eskeintzen. Hunek piso guztia alokatzen du, eta orain arte ikusi denez, ez dute jende falta izanen.

### Kinto besta

Ekainaren 3an sekulako kinto-besta ospatuko da Armua jatetxean: Zugarramurdi, Urdazubi eta Sarako 1960tik 1965rainoko kintoak juntatuko dira. Dantzaldia Joxe Angel akordiolariaren eskutan izanen da eta gan nahi duenak Armuan izena eta 1.000 pezeta eman behar ditu ekainaren 1a baino lehen

## EZKONTZAK

**Martin Rodriguez Gomez** eta **Mª Pilar Juanena Noain**, Burlata eta Oronozkoa, apirilaren 29an.
**Gabriel Leiza Petrirena** eta **Mª Teresa Altzuart Oteiza**, Lesaka eta Arraiozkoa, maiatzaren 6an.
**Jesus Mendiburu Indaburu** eta **Blanca Quintana Rastrollo**, Zugarramurdi eta Cordobakoa, apirilaren 29an.

## JAIOTZAK

**Nerea Etxenike Errandonea**, Arizkungoa, apirilaren 26an.
**Javier Maia Sadaba**, Lesakakoa, apirilaren 23an.

## HERIOTZAK

**Tomas Gregorio Lastiri Dorremotzea**, Erratzukoa, apirilaren 26an, 78 urte.
**Juan Jose Irisarri Hualde**, Elbetekoa, apirilaren 27an, 75 urte.
**Fernando Felipe Karrikaburu Maia**, Arraiozkoa, maiatzaren 2an, 79 urte.
**Jose Antonio Sukunza Urkiola**, Leitzakoa, apirilaren 25ean, 83 urte.
**Juan Pedro Larraz Zabaleta**, Leitzakoa, apirilaren 29an, 47 urte.
**Martxeline Etxeberrigarai Zubieta**, Sarakoa, maiatzaren 8an, 95 urte.
**Jose Benito Etxeberria Altzugarai**, Lesakakoa, apirilaren 30ean, 81 urte.
**Emilia Almandoz Alberro**, Iturengoa, maiatzaren 7an, 89 urte.
**Federico Arburua Elizagoien**, Berakoa, apirilaren 26an, 85 urte.
**Tiburcio Arburua Irazoki**, Berakoa, apirilaren 28an, 68 urte.

KIROMASAIA
Iñaki Razquin
KIROL MASAIA - Besoa - Belauna - Ukalondoa - Zurmioa
GIHAR LASAITZEA
BIZI MASAIA
- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika
ERLAJAZIO MASAIA
Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...
TERAPEUTA DIPLOMATUA
Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)
Larretxipi 17 Behea – IRUN Tel: 943-63 34 81
Ordutegia: Astelehenetik ortziralera 16.00tik 20.00ra
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra
R.P.S.: 199/94

Santiago 71, ☎ 580166
TALLERES ZALDAIN
TOLDOEN INSTALAZIOA
ELIZONDO

JATETXEA
✆ 589297
Pedro Axular
ELIZONDO
Santxotena

Esker Onak
Urtemugak
Eskelak

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapak** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.
Deitu gure telefonora:
✆ 63 11 88

## BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa eta Urgentziak.................088/061
**Osasun Zentruak**
Elizondo........... 452367 / 580235
Doneztebe ...................... 450300
Lesaka ........... 637428 / 637336
Leitza ............. 510248 / 510573
**Nafarroako Ospitaleak**
Nafarroako Ospitalea .... 102100
SSko Urgentzi Zerbitzua ........................ 246750
Virgen del Camino Erresidentzia ................. 109400
Gurutze Gorria ............... 226404
**Gipuzkoako Ospitaleak**
Irungo ospitalea ............. 614600
Gipuzkoako ospitalea .... 460299
Erresidentzia ................. 453800
**Anbulatorioak**
Irun ................. 630264 / 621106
**Anbulantziak**
Oitz ................. 450242 / 450805
**DYA**
Lesaka (Larrialdiak) .......... (943) 464622
Doneztebe (Larrialdiak) ................... 171717
**FUNERARIA**
Doneztebe ...................... 637404
Elizondo ......................... 580924
Lesaka ........................... 637404
**Suhiltzaileak**
Oronoz-Mugairi .............. 592255
**Garraioak**
Bidasotarra ..................... 631150
Baztanesa ....................... 580129
Leitzaran ......................... 515018
**Aberiak:**
Iberduero ........ 450335 / 450336



# Ezintasuna duten pertsonendako oporrak

## Interesatuek tokian tokiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo dezake informazio gehiagorako

COCEMFE Zerbitzu zentroak oporrak antolatu ditu ezintasuna duten pertsonentzat prezio eta modu egokietan. Aukera honetara biltzeko honako baldintza hauek bete behar dira: %60a edo gehiagoko ezintasuna izatea; 16 urte baino gehiago izatea, eta 18 urte bete gabeak baditu, aita edo amaren baimena; eta azkenik, eritasun kutsakorrik ez izatea.Gurpildun aulkian ibiltzen direla edo %75a baino gehiagoko ezintasuna dutelako laguntza behar duten horiek, laguna eramaten ahal dute. Hauek ere prezio berdina ordainduko lukete. Informazio gehiago izateko deitu Gizarte Zerbitzuetara.

| NOIZ | TOKIAK | PREZIOA |
|---|---|---|
| Ekainak 6-19 | Rosas (Girona) | 21.000 Pta. |
| Ekainak 17-30 | Benidorm (Alikante) | 21.000 Pta. |
| Uztailak 2-15 | Gandia (Valentzia) | 28.000 Pta. |
| Uzt. 19-Abuz. 1 | Caldas (Kantabria) | 28.000 Pta. |
| Abuztuak 1-14 | Salou (Tarragona) | 30.000 Pta. |
| Abuztuak 16-29 | Salou (Tarragona) | 30.000 Pta. |
| Ab. 28-Irail. 10 | Rosas (Girona) | 24.000 Pta. |
| Irailak 17-30 | Roquetas d. Mar (Alm) | 23.000 Pta. |
| Azaroak 2-15 | Matalascañas (Huelva) | 17.500 Pta. |
| Azar. 18 -Ab. 1 | Benidorm (Alikante) | 18.500 Pta. |

## Garapen agenteen ordutegiak herriz herri

Cederna-Garalurek herriz herri jendea atenditzeko duen ordutegia ezagutzera eman du berriki.

**Baztanaldea:** Elizondon astearte eta asteazken goizetan (9-14) Tfna: 580561. Urdazubi eta Zugarramurdin ortzegun goizetan (10-13).

**Bortziriak-Malerreka:** Donezteben astelehen-asteazkenetan (9-14). Tfna: 451654. Beran ortzegunetan (10-12). Tfna: 630005 Lesakan asteartetan (9-14). Tfna: 637061.

**Leitza**: Ostegun eta ostiraletan goizeko 10-13etara. Tfnoak: 510009-604619.

Agente hauek Herriko Etxe hoietan egonen dira aipatu egun eta orduetan.

## Maiatzaren 27an Bordeleko Nazioarteko Feriara joateko CANek bidaiak antolatu ditu

Urtero egin duen bezala, aurten ere Nafarroako Aurrezki Kutxak bidaia antolatu du Bordeleko feriara joateko. Autobusaz gain, ferian sartzeko txartela ere eskuratu zaie interesatuei. Horretarako, CANeko bulegoetan eman behar da izena, eta han, xehetasunen berri emanen diete.


**Giltzaren bila**
**lehiaketa**

Izen-Deiturak.................................................................
Helbidea.........................................................................
Herria.................................... Tfnoa:..........................................
**Giltza ............. orrialdean dago. Zehazki, zein tokitan? ..........**
.......................................................................................

Kupoi hau moztu eta Bera, Doneztebe, Leitza edo Lesakako Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan utzi lehenbailehen.
LEHIAKETA HONEN OINARRIAK 151. ALEKO AZKEN ORRIALDEAN AGERTU ZIREN

Aldi honetako jatetxeak:
• Leitzako HARAKINDEGIA eta
• Doneztebeko AMEZTIA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hurrengo **lau hilabeteotan**, otsaila, martxoa, apirila eta maiatzean, bi lagunendako **8 otordu** (bakoitza 15.000 pezetako afari edo bazkaria) **zozketatuko dira** Euskadiko Kutxaren **giltza aurkitu dutenen artean**.
Giltza aldizkari honetako edozein tokitan egoten ahal da. Orrialde honetako publizidadekoak ez du balio. **Bilatu!** eta aukitu duzunean, **bete** ondoko **kupoia edo deitu beheko telefonora**.

TELEFONOZ DEITZEKO ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera goizeko 8etatik gaueko 10etara
Larunbatetan goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara

901 - 333444

*Anima zaitez parte hartzera!!*

# Inaxio Errandonea, eskuz banakako bigarren final nagusiaren aitzinean

## Alkaiagatarrak larunbat honetan jokatuko du finala Belokiren kontra

**Inaxio Errandoneak larunbat honetan jokatuko du Anoeta pilotalekuan eskuz banakako pilota txapelketaren finala. Aitzinean, txapelketa honetan joku maila izugarria eta, adiruen erranetan, faborito gisara aterako den Ruben Beloki 20 urteko burlatarra izanen du.**

Bi denboralditan Inaxio Errandonea lau final nagusietara ailegatu da. Iaz, mano-manoan azpitxapelduna izan zen Arretxeren kontra eta lau t'erdiaren barrenean Eugiren kontra burua makurtu behar izan zuen. Retegirekin batera eskuz binakako txapela bururatu zuen.

### FINALERDITAN, USTE BAINO ERREXAGO

Dagoeneko, aunitz hitzegin eta idatzi da Galartzaren kontra jokatu zuen finalerdiaz. Galartzak bere partidua ez zuela egin pentsatzen du Inaxiok: *"Urduri ikusi nuen. Azken bi urtetan nahiko mottel aritua zen eta aurten, presionatuta atera da. Berak ratxa hori hautsi nahi zuen. Ongi prestatua zegoen baina nerbioso aritu zen eta partidu kaxkarra egin zuen"*.

### HIRUGARRENEAN TXAPELAREN BILA

Eskuz banaka hirugarren aldiz saiatuko da txapela lortzen Inaxio: *"Orain ere partidu zaila dut. Faborito bezala, dudarik gabe, Beloki aterako da"*. Halere, ez du aldez aurretik burua makurtzeko intentziorik. Errandonearen erranetan, *"ez Eugik ezta Arretxek ere ez diote behar den bezala jokatu"*. Taktikaz solasterakoan kontuak garbi ditu, beraz, Alkaiagako atzelariak. *"Gaur egunean, Belokiri irabazteko aukera bakarra bere tokitik ateratzea da. Berekin peloteoan hasten bazara izugarri zaila da dominatzea. Orduan bi paretekin eta dejadekin saiatuko naiz, aukera baldin badut, noski"*.

### ENTRENAMENDU BEREZIRIK EZ

Eskuz eskuko txapelketarako bereziki entrenatzen dira pilotariak. Fisikoki, binaka aritzeko baino aunitzez gehiago prestatzen dira, eskuendako gogorragoa baita mano-mano aritzea. Finalerako berriz, ez du prestaketa berezirik egin Errandoneak: *"kuestionea, azken bi hilabetetako nibela mantentzea da eta horretarakol xuabeago aritu naiz"*.

Pronostiko bat ematerakoan baikor agertu zaigu Inaxio *"Ez zitzaidan batere inportatuko Belokik hogeitabat tanto eginda ere nik hogeitabi egiten baditut"*. ■

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIA: JOXEMANUEL IRIGOIEN



*"Ez litzaidake batere inportatuko Belokik hogeigabat tanto eginda ere, nik hogeitabi ateratzen baditut"*

## Txirrindulari denboraldia furi-furian dago

Maiatzaren 27 eta 28an jubenil mailako bi txirrindulari karrera burutuko dira gure eskualdean.

Larunbatean (27), Club Ciclista Beratarrak antolatutako XIV. Luis Mª Apeztegia memoriala burutuko da. 82 kilometroko luzera izanen du ibilbideak eta arratsaldeko 4,30etan abiatuko da Beratik.

Bertzalde, Iruritako besten barrenean eta Iruritako Txirrindularitza elkarteak antolatuta, Aszentsio sariaren berrogeita bigarren edizioa burutuko da. Goizeko 10etan aterako dira Iruritatik eta Baztan inguruan 100 bat kilometro egin ondotik herri berean bukatuko dute ibilbidea.

Bertzalde, asteburu honetan burutu da Gure Txokoa eta Urtxintxa elkarteek antolatutako XX. Felix Errandonea memoriala, hau eretxirrindulari jubenilei zuzendutako proba.

### Laxoa txapelketaren hurrengo partiduak

**95-V-21**

**A Taldea:**
Doneztebe B-Doneztebe C (12etan)
Arraioz-Doneztebe A (12etan)
**B Taldea:**
Erreka-Oitz B (5etan)
Oitz A-Irurita (12etan)
Atsedena: Zubigorri

**95-V-14**

**A Taldea:**
Errekuperazioa.
**B Taldea:**
Oitz B-Oitz A (12etan)
Erreka - Zubigorri (12etan)
Atsedena: Irurita

## Lesakako Beti Gaztek hirugarren txapela eskuratu du sokatiran

Lesakako Beti Gazte taldeak eskuratu zuen Nafarroako 560 kilotako sokatira txapela, maiatzaren 6an Oibarren burutu zen proban. Lesakarrek 11 puntu eskuratu zituzten, Amaiurko taldeak baino bat gehiago. Larraunek sei puntu eskuratu zituen, Aresok hiru eta Txantreak zero.

Orokorrean tiraldi gehienak oso luzeak izan ziren (txapelketa osoan zehar eman diren luzeenak) eta ez kalitate haundikoak (taldeek denbora aunitz eman zuten lurrean). Tiraldi luze horien ondorioak bukaeran sumatu ziren.

Modu honetan, denboraldiaren balantze gisara Lesakak aurtengo lau txapeletatik hiru eraman ditu, Amaiurrek 600 kilokoa etxeratu zuelarik.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

**Maiatzaren 6etik 20ra** Arizkunenea Kultur etxean Miguel Guzman Rosales margolari mexikarraren lanak ikusgai.

## BESTAK

### URDAZUBI

**Maiatzaren 24tik 28ra.** Ikus xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

### IRURITA

**Maiatzaren 24tik 28ra.** Ikus xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

## IKASTAROAK

### DONEZTEBE

**'Enpresaritza proiektuen garapena'** Maiatzaren 18tik ekainaren 29ra, hamar egunetan, emanen da ikastaro hau Doneztebeko Juansenean. Jesus Bueno Asin izanen da ikastaroa emanen duena. Informazioa eta izen-emateak: Cederna-Garalur-eko bulegoak. Telefonoak: 451654 edo 580561.

## ERREZETA



# *Arrain pastela*



Tere SANTXOTENA 'Santxotena' Jatetxekoa •ELIZONDO•

**Osagaiak**

*• 200 gr. arrain (edozein itxas arrain) • 6 arraultze • 200 gr. tomate (prestatua) • 200 gr. esnegain • gatza • piperrautsa •*

**Prestatzeko manera**

Arraina egosi ondotik papurtu. Bertze aldetik arraultzeak irabiatuko ditugu, eta esnegaina, tomatea, gatza, piperrautsa eta arraina bera erantsiko diogu. Ontzi edo molde batean jarriko dugu nahaski hori, gero, 'bañomarian' sartzeko labean. Labea 180 gradutan jarriko dugu eta ordu batez edukiko dugu bertan.

Serbitzeko saltsa arroxa prestatuko dugu. Horretarako, mahonesa, ketchup-a, esnegain pixka bat, laranja zukua eta armagnac txorrotada bat erabiliko ditugu.

Arrain pastela hoztu denean, xerratuko dugu, Saltsa arroxa erantsi eta listo dago.

On egin!

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.200 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 190 pzta/kilo
- **Zerramak:** 130-135 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 600 |
| 1.koa | 570 |
| 2.koa | 550 |

- **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 610 |
| 1.koa | 580 |
| 2.koa | 560 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 35-40.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 40.000 eta idixkoak 50.000 Pzta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 430 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: **EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...**



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 950.
- **Udareondoa** 950 pzta.
- **Gereziondoa** 1.050 pzta.
- **Aranondoa** 1.050 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- **Muxika** 870 pzta.
- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.



ANSONEA
JATETXEA
*Kontsultatu menu bereziak*
Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**

ETXANDI TXOKO erretegia
**Bazkari, afari eta gosariak**
**ITUREN**
**Tfnoa: 45 04 91**

KONTSUMITZAILEARENDAKO AHOLKUAK

# *Etxebizitzaren zaharberritzea: dirulaguntzak eta betebeharreko baldintzak*



**Dirulaguntzetara biltzeko, zaharberritu nahi den etxeak 15 urte baino gehiago izan behar ditu. Hori bai, etxea elbarrientzako edota legeak nahitanahiez agintzen duenera egokitzeko moldatzen baldin bada, ez da beharrezkoa etxeak 15 urte izatea.**

Etxe baten zaharberritzean pentsatzen hasten garenean, kontutan eduki behar dugu Nafarroako Gobernuak badituela dirulaguntza bereziak etxebizitzak hobetu, zaindu eta zahar berritzeko.

**BALDINTZAK**

Dirulaguntza hauetara biltzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1.— Etxeak 15 urte baino gehiago izatea.

2.— Etxea elbarrientzako edota legeak nahitanahiez egintzen duenara egokitzeko moldatzen baldin bada, ez da beharrezkoa etxe horrek 15 urte izatea.

3.— Zaharberritzerakoan eginen diren obrek, ezin izanen dute etxeak duen egitura aldatu.

4.— Dirulaguntza eskuratzeko, behar beharrezkoa da obrak egiteko behar diren Herriko Etxearen eta gainerako baimen guziak izatea.

5.— Zaharberritutako etxeek, bizitzeko baldintzak eta segurtasun neurriak bete beharko dituzte.

6.— Zaharberritutako etxebizitzaren %70ak bizitegirako erabilgarria gelditu behar du, eta horretarako, etxearen beheko partean egoten diren garagelekuek ez dira kontatzen.

7.—Etxebizitza bakoitzari dagokion aurrekontuaren kopurua 500.000 pezeta baino haundiagoa izan behar du. Dena den, zaharberritzen den metro karratu bakoitzaren prezioa mugatua dago Nafarroa osoan.

*Zaharberritutako etxearen %70ak, bizitegirako erabilgarria gelditu behar du laguntza izatekotan.*

MIKEL BEZUNARTEA
'IRATXE' KONTSUMITZAILEEN ELKARTEKOA

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BERTSOAK

**GOIZUETA**

**Maiatzaren 27an** larunbata, Umore Onan bertso afaria Xebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin. Ondoren, Dani, Rosa Mari, Rakel eta Ainara trikitilariak. Antolatzailea: Euskaltegia.

### KONTZERTUAK

**DONEZTEBE**

**Maiatzaren 27an** larunbata, ilunabarreko 8,30etan elizan, piano, txistu, gitarra eta perkusioa erabiliz kontzertua eskeiniko dute Itziar, Ainhoa eta euren taldeak.

**Maiatzaren 19an** ortzirala, 9,30etan Ekaitza tabernan, "Gutariko Bat'.

**Maiatzaren 20an**, larunbata, 10,30etan Ekaitza tabernan 'Gozategi Anaiak'.

**Maiatzaren 21ean** igandea, 8,30etan Ekaitza tabernan 'Mister Saguak'.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Maiatzaren 15etik 21era** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

**Maiatzaren 22tik 28ra** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

**Maiatzaren 29tik ekainaren 4ra** Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ©ra

## ETXEBIZITZAK

**LESAKA**. Pisua salgai Lesakako Bittirian. ☎ 387007 (arratsaldeko 7-9).

**BERA.** Agerra auzoan 21m²ko garajea salgai ☎ 630874 (ilunabarretan).

**BAZTAN-MALERREKA.** Etxea erosi nahi dugu, zahar edo berria. ☎ 580941.

**BERA.** Eztegara pasealekuan 95m²ko pisua salgai. Badu igongailua. ☎ 637184.

**LEGASA.** Etxea baratzearekin salgai. ☎ 450652.

## DENETARIK

**Kartelak**, Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

**Ikasleren** batek Iruñean gela bat alokatu nahi badu, deitu ☎ 174262ra. Karmele. Gauetan.

**Rotabatorea** Agria 3001 markakoa salgai. Erruedak, patata ateratzeko tresna. Guti erabilia. ☎ 630597.

**Enpakadora** belarrarentzat salgai. ☎ 630871.

**Etxalarren,** martxan dagoen jatetxea alkilatzen da. ☎ 635038.

**Trikitixa** erosiko nuke. ☎ 630598.

**Oronoz**en lur natural ona emanen nuke eraman alde. ☎ 592235.

**Garbigailua** eta **hozkailua** salgai, egoera onean, gutxi erabiliak. ☎ 631182.

**'Ormigonera** amasadora' ia berria, egoera onean dagoena saldu edo alokatzen dut. ☎ 393111 (arratsetan).

**Su egurra**, txikitua,saltzen dut. ☎ 890026.

## AZIENDAK

**Behor** dotorea eta lanean ongi dakiena, bere umearekin salgai. ☎ 634074.

**Pekines** arrazako zazpi zakurkume salgai, bi hilabetekoak. ☎ 631218.

**Zelatzeko** behorra (monturakoa) salgai, lau urtekoa. ☎ 637270 (Lesaka).

**Hiru** zakurkume mestiz salgai, bi hilabetekoak. ☎ 637957 (arratsetan).

**'Spagniel** Breton' ehizi zakurkumeak salgai, aitaamak ehizi zakur onak. ☎ 301102. (lan orduetan).

## IBILGAILUAK

**Nissan** Patrol salgai, lau zilindrokoa eta lau urtekoa, ongi zaindua. ☎ 637050.

**R-18** diesela salgai. ☎ 510167.

**Volkswagen** Corrado, 16 balbulakoa salgai. Lau urte, NA-AC eta 37.000 km. ☎ (943) 643121 (arratseko 9etatik aurrera).

## LANA

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

**Neska** gaztea, 21 urtekoa eta esperientziaduna, haurrak zaindu edo etxeko lanak eginen lituzke. Hobe Lesaka edo inguruan. ☎ 637936 (Ainhoa).

**Neska bat** behar da Iruñean etxe batean lan egiteko, astelehenetik larunbatera, interna moduan. ☎ 225210.

## AGURRAK

**Erratzuko** Amaia eta Arantxa, oso onak zaudete. Bordatxon zuekin egondako bi mutilen partez.

**Zorionak Txema** eta ondo pasa. Urtero hobeagoa zaude. Barkatu berandu ibiltzeagatik.

**Arizkungo T.Hri:** Zutaz oso maiteminduta nago ikusi zintudanetik. Nere aintzinetik pasatzen zarenean gorritu egiten naiz. Zurekin hitzegiteko gogoak ditut bainan beldur naiz zeren eta moztuko naiz. Elizondoko neska baten partez.

**Berako ikastolako** hiru nesken partez Urko, Zipo eta Goienetxe oso guapoak dira.

**Zorionak Jon**; zure urtebetetzean (maiatzak 7) zure guraso eta anaiaren partez.

**Iruñe**ko kartzelan preso dauden intsumituei: Preso egon arren, askatasunaren iturri zarete. Gogoan zaituztegu. B.T.A. Aupa Alberto. Komando Zumarraga.

**Lesaka**ko Mañuri: Bordatxoko dantza saioak bukatu arren, zure dantzatzeko era berezi hori berriro ikusteko aukera izanen dudalakoan nago. Z.20-R.

**Areso**ko Zuriñe, Patxi, Teresa eta Uxueri, zorionak maiatzak 21, 22 eta 27an. Juana Mª

**Elizondo**ko Itziar Irisarrirentzat zorionak eta ongi pasa urtebetetze egunean, maiatzak 23. Alizia.

**Bera**ko Leire Eltzaurdiarentzat zorionak bere bigarren urtebetetzean, maiatzak 19. Arizkungo amatxi eta osabaren partez.

**Lesaka**ko Xabier Terreros eta Igantziko I. Seineri: Zer gertatzen da zuek biokin? Moskeatuta nabil Lesakan egin zenuten solasaldi luzearekin. Zuen lagun inbidioso bat.


IKASSOFT GRUPO

- Zerbitzu informatikoak
- Formakuntza Informatikorako ikasgela
- Aholkularitza Fiskala, Laborala eta Kontablea

ENPRESA ZERBITZUAK

Señor de Aranzate, 8 Behea • IRUN • Faxa eta Tfnoa: (943) 63 35 91

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305

LEGARRA

Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

ESKAINTZAK

Maiatzaren 31 bitarte baliagarriak dira

| | | |
|---|---|---|
| • 'Elite' munduaren esfera | ~~4.495 Pta.~~ | 2.850 Pta. |
| • 'Marco Polo' " " | ~~6.950 Pta.~~ | 4.350 Pta. |
| • Eskola motxila | ~~3.395 Pta.~~ | 2.695 Pta. |
| • Margoen maletina (86) | ~~2.800 Pta.~~ | 1.895 Pta. |
| • 'Liliput' grapadora | ~~440 Pta.~~ | 359 Pta. |
| • 'Petrus' taladroa | ~~520 Pta.~~ | 465 Pta. |
| • Ttikiendako plumierra | ~~1.975 Pta.~~ | 1.225 Pta. |
| • 'Carioca' errotuladoreak (12) | ~~202 Pta.~~ | 169 Pta. |
| • 'Pentel' boligrafoa | ~~141 Pta.~~ | 129 Pta. |
| • 'Loan' talonarioa | ~~340 Pta.~~ | 250 Pta. |
| • 'Jovi' temperak | ~~840 Pta.~~ | 727 Pta. |
| • 'Papermate' korrektorea | ~~345 Pta.~~ | 295 Pta. |

# ttipi-ttapa

*Etxe xoko guzietan!!*

## HEDAPENARI BURUZKO DATU KONPARATIBOAK

| | Diario de Navarra | El Diario Vasco | egin | Deia | Egunkaria | Noticias | Sud Ouest | ttipi-ttapa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BAZTANALDEA** | 374-558 | 71-98 | 80-126 | 9-11 | 12-17 | 134-188 | 0-0 | 1.460 |
| Baztan (1) | 339-523 | 71-98 | 76-120 | 9-11 | 12-17 | 131-185 | 0-0 | 1.290 |
| Urdazubi | 25-25 | 0-0 | 3-5 | 0-0 | 0-0 | 3-3 | 0-0 | 102 |
| Zugarramurdi | 10-10 | 0-0 | 1-1 | 0-0 | 0-0 | 0-0 | 0-0 | 68 |
| **BORTZIRIAK** | 127-231 | 603-799 | 154-192 | 13-14 | 32-35 | 53-61 | 0-0 | 1.815 |
| Arantza | 3-3 | 10-10 | 5-5 | 0-0 | 0-0 | 0-0 | 0-0 | 162 |
| Bera | 55-113 | 300-420 | 65-95 | 1-2 | 11-14 | 25-30 | 0-0 | 773 |
| Etxalar | 17-18 | 28-29 | 16-17 | 1-1 | 5-5 | 8-9 | 0-0 | 173 |
| Igantzi | 12-12 | 45-60 | 3-10 | 0-0 | 0-1 | 0-0 | 0-0 | 139 |
| Lesaka | 40-85 | 220-280 | 65-65 | 11-11 | 16-15 | 20-22 | 0-0 | 568 |
| **LEITZALDEA** | 113-206 | 93-166 | 136-186 | 6-6 | 16-17 | 21-25 | 0-0 | 854 |
| Areso | 4-4 | 1-1 | 10-0 | 0-0 | 0-0 | 0-0 | 0-0 | 53 |
| Goizueta | 0-0 | 30-50 | 45-65 | 0-0 | 10-10 | 0-0 | 0-0 | 187 |
| Leitza | 109-202 | 62-115 | 81-121 | 6-6 | 6-7 | 21-25 | 0-0 | 614 |
| **MALERREKA** | 227-366 | 96-163 | 56-78 | 1-2 | 14-12 | 67-77 | 0-0 | 1.136 |
| Doneztebe | 158-275 | 70-132 | 38-54 | 1-2 | 8-6 | 35-38 | 0-0 | 272 |
| Ituren | 0-0 | 0-0 | 10-15 | 0-0 | 3-3 | 0-0 | 0-0 | 117 |
| Sunbilla | 30-52 | 25-30 | 7-8 | 0-0 | 1-1 | 27-34 | 0-0 | 160 |
| Herrietan(2) | 39-39 | 1-1 | 1-1 | 0-0 | 2-2 | 5-5 | 0-0 | (2) 587 |
| **SARA** | 0-0 | 4-3 | 16-15 | 3-2 | 2-1 | 0-0 | 250-230 | 97 |
| Denetara | 841-1.361 | 867-1.229 | 442-591 | 32-35 | 76-82 | 275-351 | 250-230 | 5.755 |




### HEDAPENA ZENBAKITAN

Lehen kopurua asteguneko banaz bestekoari dagokio, bigarren kopura igandetakoari.

***Saltoki eta posta zerbitzutik eskuratutako datuen arabera***

(1) Baztango herri guzietako kopuruak batera emanak daude, korreoz hartzen direnak barne.
(2) Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbilla izane ezik, korreoz hartzen direnak barne.

# COMPROMISO CON FUTURO. BENETAN!

**Zure botoarekin axola zaizuna defendatzen duenari aukeratu.**

NAFARROAKO ABERTZALEAK, alderdien siglak alde batera utzi dugunon esfortzu bateratu bat da, gure lurrari itxaropen garbi bat eta etorkizun hobe bat eman nahi diegunena.

Abertzaletasun Ezbortitzatik, oinarri batzuk atera ditugu, euskalzaleek erakundeetan demokratikoki parte hartu eta laguntzeko prest dagoen alderdi politiko bat aurkitu dezaten, bere konfidantza guregan jartzen dutenei ordezkatzeko, lagunkidetasunak eta gure izaera demokratikoak behartzen digun gizarte zuzentasunarengatik.

Batzeko garaia da; gure lurratik elkartzekoa. Independienteak, Euskal Ezkerra eta EAJ hasiera gara, bainan ez dugu amaiera izan nahi. Zure botoarekin Nafarroan aukera abertzalea Benetazkoa dela, demokratikoa, paketsua eta euskalduna dela erakutsi ezazu.

Benetan garrantzitsua denarekin elkar zaitez.



**NA Bozkatu.**

Nacionalistas de Navarra — NA — Nafarroako Abertzaleak



# Talleres Onena

PVCko Aroztegia

Zaldubia Industrialdea
31730 IRURITA (Nafarroa)
Tfnoa. eta Faxa 948 / 58 05 32

deceuninck

**PVCak abantaila aunitz ditu baita garantiak ere**

**1. Ez du inolako arazorik haize-euritan eta eguzki galdetan errex irauteko.**
Irauteko egina dago… inbertsio errentagarria da.

**2. Suari ere irauten dio.**
Inork ez du hori zalantzan jartzen.

**3. Mantenu erraxekoa.**
Xaboi-urekin garbitu eta listo!

**4. Kanpoko zarata kanpoan gelditzen da.**
Deceuninck leihoek kanpoko soinuetaz ederki isolatzen du.

